

GASTU ETA SARRERA
KORRONTEEN EBOLUZIOA

GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA
1990/2014 ALDIA (MILA EUROETAN)

ALDIA	GASTU KORRONTEA	SARRERA KORRONTEA	ALDEA	% S/SARRERA KORRONTEA
1990	6.520,53	9.767,92	3.247,39	33,25
1991	8.071,19	10.863,01	2.791,82	25,70
1992	8.660,91	12.550,89	3.889,98	30,99
1993	9.455,00	12.336,71	2.881,71	23,36
1994	10.336,41	13.078,00	2.741,59	20,96
1995	11.335,96	13.896,06	2.560,10	18,42
1996	11.612,34	14.712,51	3.100,16	21,07
1997	11.628,60	15.224,81	3.596,21	23,62
1998	11.254,50	15.707,83	4.453,33	28,35
1999	11.577,06	17.340,55	5.763,50	33,24
2000	12.407,90	19.991,32	7.583,42	37,93
2001	13.480,12	18.784,16	5.304,04	28,24
2002	14.097,90	19.140,00	5.042,10	26,34
2003	15.733,28	21.070,81	5.337,53	25,33
2004	17.018,25	24.461,19	7.442,94	30,43
2005	18.469,92	24.549,39	6.079,47	24,76
2006	19.598,02	27.650,81	8.052,79	29,12
2007	20.676,12	28.870,84	8.194,72	28,38
2008	22.574,11	28.469,48	5.895,37	26,11
2009	23.229,39	26.072,10	3.390,10	12,77
2010	22.622,13	27.608,56	4.985,43	18,06
2011	22.555,87	25.631,82	3.075,95	12,00
2012	22.121,79	26.665,20	4.534,41	17,04
2013(1)	22.550,00	27.100,00	4.550,00	16,79
2014(2)	25.197,38	28.845,72	3.648,34	12,65

(1) 2013ko aurrekontu zirriborroaren datuen arabera

(2) 2014ko aurrekontuaren datuen arabera.



Koadro hau aztertzen hasi aurretik, komeni da hausnartzea gastu korrontean zer neurritaraino dagoen borondatezko izaerako gastu portzentaje garbia (bereziki Diru-laguntzak - IV. Kapituluak) eta, hortaz, neurri batean aldagarria den edo ez. Baiezko erantzuna emanez gero hausnarketa horri, horrek esan nahiko luke, borontate politikoa egonez gero, gastu korrontean murrizteko erabakiak hartu daitezkeela, krisi ekonomikoaren oraingo egoerari egokitzen saiatzeko, diru-sarrerak gutxitzeari aurre eginez (une honetan gertatzen ari denaren modukoa), eta gastu korronteen eta diru-sarrera korronteen artean maniobra marjina edo diferentziala geroago eta txarragoa ez izateko eta hura mantentzen saiatzeko. Azken finean, ez dugu ahaztu behar kopuru hori inbertsioak finantzatzeko edo gastuen beste behar berri batzuetarako finantzazio iturria izango dela.

Udal gastuaren egituraren zurruntasun handiagoari edo txikiagoari buruzko hausnarketaren kalterik gabe, udal aurrekontuen datuak soilik aztertuta (1990-2012 epealdiko datuak benetakoak dira, itxierako likidazioetatik aterata, eta 2013-2014 epaldikoak balioespenak dira), eta kontsideratuz gastu korrontea dela Gastuen aurrekontuaren I. Kapitulutik IV. Kapitulara doan guztia batzea (langileak, ohiko erosketak, maileguen interesak eta transferentzia korrontek) eta diru-sarrera korrontek direla I. Kapitulutik V. Kapitulara doazenak batzea (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak, transferentzia korrontek eta ondarezko diru-sarrerak), gastu-diru sarrera korronteen diferentzialaren (udal aurrezpena) eboluzioan, koadro honen bitartez argi bereizi ditzakegu lau ziklo ezberdin.

1996-2000 aldia; diru-sarrera korrontea handitu egin da, eta horrekin batera gastu korronteari zerbait eutsi egin zaio, eta horrek ekarri du diferentziala nabarmen hobetzea.


2001-2003 aldia; diru-sarrera korrontek mantendu dira (urte baten jaitsi ere egin dira), eta horrekin batera gastua handitu egin da, eta horrek ekarri du diferentziala kaltetzea.

2004-2007 aldia; diru-sarrera arruntak nabarmen handitu dira, eta horrekin batera gastu arruntak gehitu egin dira, gehitu ere diru-sarrerak baino gehiago. Beraz, diferentziala ez da hobetu (ehunekotan, diru-sarreraren aldean apur bat okerragoa da).

2008-2013 aldia; nahiz eta gastuen kontrolaren saiakera egin, hain garrantzitsua izan den diru-sarreraren murrizketa, bere ondorioa izan da, sarrera arruntei buruz, bai kopuruetan bai portzentajeetan, diru sarrera – gastuen diferentziala aztertutako aldi osoaren baxuenak direla. 2014 ekitaldirako, aurrekontuen balioespenaren arabera, aurreko urteari buruz diferentziala okertu da, oraingo honetan gastuetan izandako gehikuntzaren ondorioz (ia 2,5 milioi gehitu dira 2013ko itxierari buruzko balioespenen aldean), horretarako enplegua sustatzeko kontratazioek, enplegua sortzeko fondoak eta ikuskaritzako kontratu berriak eragin nabarmena dutelarik.

Horrek behartzen gaitu hausnarketa sakona egiten, batez ere kontuan hartzen badugu diru-bilketa gutxiagoko egoera batean gaudela, eta zailtasunak izan ditzakegula erabaki batzuetan atzera egiteko (TAO, azpikontratutako zerbitzuak, etab.). Garrantzitsua da adieraztea joera horrekin jarraituz gero hurrengo urteetan, diru-sarrera-gastuen diferentziala murrizten doala apurka-apurka, eta horrela ezinezkoa izango da inbertsioak finantzatzea udal aurrezkien bidez.

GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA 1990/2014 ALDIA



GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA 1990/2014 ALDIA

